**BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA:**
**FATXADAK GARBITZEKO ETA AFIXAK KENTZEKO ZERBITZUA**

**Lehenengoa. KONTRATUAREN XEDEA**

Kontratu honen xedea fatxadak garbitzeko, hormetan jarritako afixak eta paperak kentzeko eta udalerrietako kale eta plazetan jarritako pankartak kentzeko zerbitzua kontratatzea da, baldintza agiri honetan jasotako ezaugarriekin bat, Eibarko udalerriko harresi, horma eta paramentu bertikala osatzen duten elementu guztien, kaleen eta plazen estetika zaintze aldera.
Sortatan ez lizitatzeari dagokionez, sorta bakarrean lizitatzea Erakundearentzat onuragarriagoa dela jotzen da, bestela bikoiztuko bailitzateke langileen joan-etorrien kostua, zerbitzua bi enpresa desberdinari esleituta egongo litzateke eta.

**Bigarrena. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA**

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, gehienez ere, 153.999,94 € da (BEZa barne), bi urteko aldirako.

Afixak eta pankartak kentzeko eta hormetako pintadak ezabatzeko zerbitzuak bi urteko aldian, eta –luzatu ondoren– beste urte batez (guztira hiru urtez) emateko kontratuaren balio zenbatetsia 190.909,02 euro da, BEZ KANPO (urteko 63.636,34 euro, BEZ KANPO) eta honela dago banakaturik:

2.1 ) Afixak eta pankartak kentzeko zerbitzua.

Afixak eta pankartak kentzeko zerbitzua bi urteko aldian, eta –luzatu ondoren– beste urte batez, emateko kontratuaren balio zenbatetsia 73.847,09 euro da, BEZ KANPO, eta gehieneko lizitazio aurrekontua, bi urtetarako, 59.569,99 euro da, BEZa BARNE.

Lizitatzaileek adierazitakoa baino prezio baxuagoa proposatu ahal izango dute bere eskaintzetan.

2.2 ) Pintadak edozein azaleratatik kentzeko zerbitzua.

Kontratuaren balio zenbatetsia, bi urtetarako eta –luzatuz gero– beste urte baterako, 117.061,93 euro da, BEZ KANPO. Eta gehieneko lizitazio aurrekontua –bi urtetarako– 94.429,95 euro da, BEZa BARNE.

Lizitatzaileek adierazitako unitateko prezioak baino prezio baxuagoak proposatu ahal izango dituzte beren eskaintzetan.

Pintadak ezabatzeko zerbitzuaren kostua hilero fakturatuko da, zerbitzua behar bezala jasota, garbitutako azaleraren eta erabilitako metodoaren arabera; Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak proposatuko du hormetan dauden eta mankomunitateak kendu nahi dituen pintadak ezabatzeko metodoa, lizitatzaileak hormak garbitzeko hiru kasuetarako proposatzen duen prezioa aplikatuta.

Eskaintzetan proposa daitezkeen gehieneko unitateko prezioak, lanak egiteko erabiliko den metodoaren arabera:

- ⇨ Pintadak margotutako azalera batetik (horma, harresi, fatxada eta abar) kentzeko eta horma, harresia, fatxada eta abar arrabolaz berriz margotzeko zerbitzuaren gehieneko unitateko prezioa:
  11,4587 euro/$m^2$ BEZa BARNE (lizitatzaileek prezio baxuagoa proposa dezakete).

- ⇨ Pintadak harrizko azalera batetik ("cara-vista" motako adreiluak, blokeak, marmola eta abar) ur-zurrustaz garbitzeko eta desugertzeko makina erabiliz kentzeko zerbitzuaren unitateko prezioa:
  21,4049 euro/$m^2$ BEZa BARNE (lizitatzaileek prezio baxuagoa proposa dezakete).

⇨ Pintadak harrizko azalera batetik ("cara-vista" motako adreiluak, blokeak, marmola eta abar) hondar-zurrusta, plastikozko bolak edo antzeko teknika bat eta desugertzeko makina erabiliz kentzeko zerbitzuaren unitateko prezioa:
24,6235 euro/$m^2$ BEZa BARNE (lizitatzaileek prezio baxuagoa proposa dezakete).

Hormak garbitzeko zerbitzua hilero fakturatuko da, emandako zerbitzua behar bezala jasota, eta garbitutako $m^2$-en zein garbitzeko prozesu motaren arabera.

Adierazitako lizitazio tasan, lizitatzaileek egiten dituzten proposamenetan eta lizitazioa adjudikatzeko onartzen den zenbateko zehatzean, kontratuaren prezioez gain, honako hauek barne daudela joko da, ondorio guztietarako: kontzeptu desberdinen gainean aplikatu beharreko zerga guztiei dagozkien zenbatekoak, egindako joan-etorriak, dietak eta abar, Balio Erantsiaren gaineko Zerga izan ezik.

Ondorioz, ezin izango dira sail independente gisa jasanarazi, eta adjudikaziodunaren kontura eta kargura izango dira beti, halako moldez, non Mankomunitateak inola ere ez baitu adjudikazio prezioa baino zenbateko handiagorik ordainduko, eta lehiaketaren xedea den zerbitzuaren ondorioz sor daitekeen beste edozein karga ekonomikoa adjudikaziodunaren kontura izango da.

**Hirugarrena. <u>KONTRATUAREN IRAUPENA</u>**

Kontratuak bi urteko iraupena izango du, 2021eko urtarrilaren 1etik zenbatzen hasita, eta beste urte batez luzatu ahal izango da.

**Laugarrena. <u>EGITEKO LANEAN DERRIGORREZ BETE BEHARREKO BALDINTZA TEKNIKOAK</u>**

Egiteko lanetan derrigorrez bete beharreko baldintzak jarraian deskribatzen dira, eta 4.1, 4.2 eta 4.3 apartatuetan eta hurrengoetan jasota daude:

<u>4.1 Egiteko lanak:</u>

Lan eremua Eibarko hirigunea da, eta honako lan hauek egin beharko dira:

⇨ Hormetan, harresietan eta harrizko paramentu bertikalean egiten diren pintada guztiak kentzea. Garbitzen den azaleran eta ingurunean –espaloiak, oinezkoentzako pasaguneak, galtzadak eta abarretan– ahalik eta agresibotasun txikieneko prozedura mekanikoak erabiliz ezabatu behar dira. Harrizko horma horiek gogortasun desberdina izango dute, eraikinaren arabera: granitotik hasi hareharriraino, marmola eta eraikin horiek egitean erabilitako beste edozein material mota barne.

⇨ Adreiluzko hesiak edo hormak eta abarrak garbitu do margotzea, horma jatorrizko kolorean berriz margotu behar denean edo azalera horietan egindako pintadak bitarteko mekanikoez kendu behar direnean.

Pintadak, grafitiak eta abarrak dituen azalera berriz margotzen denean, pinturaz pintada osoa estaliko da, baita ingurua ere, hormaren irudi estetikoa mantentzeko behar besteko azaleran; eraberritzeko azalera, kasuan-kasuan, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak zehaztuko du.

⇨ Aipatu udalerriko lokaletako pertsianak eta azalera plastifikatuak edo metalikoak garbitzea, erabiliko den teknika eta prozedura zehaztuta.

⇨ Hormetan jarritako afixak eta paperak eta bide publikoan jarritako pankartak kentzea; lan hori Mankomunitateak zerbitzua eskatu eta hurrengo 24 orduetan (gehienez ere) egin beharko da beti.

Kasu batzuetan –Mankomunitateak horri buruzko informazio zehatza emango du– hormetan Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak kentzeko esan arte utzi beharko diren kartel eta paperak egongo dira.

⇨ Goian aipatutako zerbitzuak hirigunean burutuko dira, baita Eibarko udalerria zeharkatzen duten errepide eta galtzadetan ere, hiriarteko bideak barne, eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak lan horiek egiteko eskaera egiten duenetik hurrengo 24 orduen buruan egin beharko dira.

4.2 Lan plana

⇨ Paperak, afixak eta pankartak kentzeko zerbitzua, gutxienez ere, asteko 5 egunez beteko da, astelehenetik ostiralera, biak barne, eta egunean gutxienez bi ordu emango dira garbiketa lan horiek egitean. Urgentzia egiaztatzen denean, zerbitzua ohiko lanaldiaz kanpo egiteko eskatuko da; zerbitzua asteburuetan eta jaiegunetan ere egiteko eska daiteke.

Zerbitzua urteko aste guztietan emango da.

⇨ Pintadak eta grafitiak ezabatzeko lanak Debabarrenako Mankomunitateak hala eskatzen duenean burutuko dira; pintaden kasuan, zerbitzua eskatu eta hurrengo 24 orduetan ezabatu beharko dira hormetatik. Zerbitzu horrek paperak eta pankartak kentzeko zerbitzua osatzen du, eta azken horretaz gainera egin behar da, hau da, ezin da zerbitzu batean eman beharreko denboran beste zerbitzua egin.
Urgentzia egiaztatzen denean, zerbitzua ohiko lanaldiaz kanpo egiteko eskatuko da; zerbitzua asteburuetan eta jaiegunetan ere egiteko eska daiteke.

Egin beharreko lan guztiak lan programa bat betez burutuko dira. Programa hori Mankomunitateak prestatuko du, antzemandako beharretan oinarrituta.

⇨ Lan bakoitza –hau da, afixak eta pankartak kentzea eta pintadak ezabatzea– betetzeko jarraitu behar diren prozedurak lehiaketan parte hartzen duen enpresak banan-banan zehaztuko ditu, eta adieraziko ditu azaldutako lan bakoitza egitera bideratuko diren baliabide materialak eta giza baliabideak, jarduteko modua eta emango den denbora, hau da, egunean emango diren orduak, baita urtean zehar emango diren lanegunen kopurua ere.

4.3. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Baldintza teknikoei lotutako gutun azalean ezin dira agertu formulak aplikatuz ebaluatzen diren ezaugarri teknikoak, hala nola:

- Eskaintza ekonomikoa:
- Paperak, afixak eta pankartak kentzeko zerbitzuan egunean emango diren orduak.

Lehiaketako parte hartzaileak honako dokumentazio hau derrigorrez aurkeztu beharko du:

Lehiaketan parte hartzen duen enpresak derrigorrez memoria bat prestatuko du, gutxienez honako hauek azaltzen dituena:

⇨ Giza baliabideak, lehiaketaren xedea den zerbitzua betetzeko esleitutako giza baliabideen eskuragarritasuna.

- Afixak eta pankartak kentzeko zerbitzuan jarduten duten giza baliabideen lanaldia.
- Hormetako pintadak ezabatu behar izanez gero, eskulanaren denbora.
- Giza baliabideak eta zerbitzua urte osoan zehar emango dela bermatzea.

⇨ Baliabide teknikoak

- Hainbat makina eta tresnaren ezaugarri teknikoak.
- Pankartak kentzeko, paperak paramentu bertikaletik kentzeko eta paramentu bertikaletan egindako pintadak ezabatzeko lanak betetzeko modua edo prozesua, modalitate guztiak, margotutako azalera guztiak eta mota guztietako hormak kontuan hartuta.
- Egin beharreko lanen planifikazioa; ematen diren zerbitzuak ingurumena eta herritarrak zaintzen dituen moduan egiteko proposamena; ingurumena ahal den heinean errespetatzen duten produktuak erabiltzea; langileen inguruko politika, prestakuntzari eta lan osasun eta higieneari dagokienez.

⇨ ISO 14.001 Ingurumen Ziurtagiria eduki behar da.

4.4 Fatxadetako pintadak ezabatzeko behar den urteko lan karga kalkulatzea.

Pintadak ezabatzeari dagokionez, urtean zehar aurreikusten da:

⇨ Harresien 1.575 $m^2$ arrabolaz berriz margotzea.
⇨ Harresien 1.166 $m^2$ garbitzea (presiozko urez garbitzeko eta desugertzeko makina).
⇨ Harresien 171 $m^2$ garbitzea (hondarrez, plastikozko bolez eta abarrez garbitzeko eta desugertzeko makina).

Garbiketa horiek noizean behin egingo dira, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak hala eskatuta, eskatzen duen aldi guztietan, egunero egiten direla ikusten diren pintaden arabera.

Fatxadetako pintadak ezabatzeko, egunean 3 ordu eman behar direla aurreikusten da.

Urgentzia egiaztatzen denean, zerbitzua ohiko lanaldiaz kanpo egiteko eskatuko da, baita asteburuetan eta jaiegunetan ere.

4.5 Paper, kartel eta pankartak kentzeko behar den urteko lan karga kalkulatzea.

Paper, kartel eta pankartak kentzeko, egunean 2 ordu eman behar direla aurreikusten da.
Urgentzia egiaztatzen denean, zerbitzua ohiko lanaldiaz kanpo egiteko eskatuko da, baita asteburuetan eta jaiegunetan ere.

**Bosgarrena. LANGILEAK**

Enpresa adjudikaziodunak langileak subrogatu beharko ditu, Gipuzkoako Bide Garbiketa Publikoaren Lan Hitzarmenean adierazitako moduan.

| BIDE GARBIKETA ZERBITZUKO LANGILEEN SUBROGAZIOARI BURUZKO DATUAK (AGURAIN) | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **LANGILEA** | **LANBIDE KATEGORIA** | **KONTRATU MOTA** | **ANTZINATASUNA** | **LANALDIA** | **APLIKATZEN DEN HITZARMENA** | **SOLDATA** |
| 1. LANGILEA | PEOI GIDARIA | 189 | 2014-03-21 | ASTEAN 24,50 ORDU – % 70,00 | GIPUZKOAKO KALE GARBIKETA PUBLIKOAREN HITZARMENA | HITZARMENAREN ARABERA |

Oharra: urteko soldata gordinari buruzko datu horiei gehitu behar zaie enpresaren kargurako gizarte segurantza eta oporraldia, baita % 5eko absentismoa ere.

**Seigarrena. PUNTUAK EMATEKO IRIZPIDEAK**

**6.1 FORMULA BAT APLIKATUZ ESLEITZEN DIREN PUNTUAK EMATEKO IRIZPIDEAK. Kontzeptu hori dela eta, gehienez ere 65 puntu emango dira.**

6.1.1 Eskaintza ekonomikoa:

Eskaintza ekonomiko bakoitzaren urteko prezioa: Kontzeptu hau dela eta, gehienez ere 60 puntu emango dira.

Lehiaketako parte hartzaile bakoitzak aurkezten duen eskaintza ekonomiko bakoitzaren urteko prezioa, honela kalkulatuko da, gero ebaluatzeko eta puntuak emateko soilik: batu egingo dira, batetik, eskaintzan paperak eta pankartak kentzeagatik urte baterako ezarritako zenbatekoari dagokion diru kantitate finkoa, eta, bestetik, pintadak ezabatzea ez den prozesu bakoitza egiteagatik eskainitako prezio unitarioak urteko lan karga zenbatetsiaz biderkatuz lortutako zenbatekoa. Lan karga hori garbitu beharreko m2-tan adieraziko da: 1.575 m2, hormak arrabolaz berriz margotzearen kasuan; 1.166 m2, fatxadak garbitzearen kasuan, desugertzeko prozesua eta presiozko urez garbitzeko makina erabiliz; eta 171 m2, fatxadak presioz garbitzeko makinaz garbitzearen kasuan, hondarra, plastikozko bolak edo antzeko funtzioak betetzen dituen beste material batekin garbituz eta desugertzeko prozesua erabiliz.

Horrela kalkulatutako eskaintza ekonomiko bakoitzean adierazitako urteko prezioa ezin izango da urteko lizitazio prezioa (63.636,35 €, BEZ kanpo) baino handiagoa izan; era berean, kalkulatutako eskaintza ekonomiko bakoitzean adierazitako urteko prezioa kontratuaren indarraldiko urteen kopuruaz biderkatuta (2 urte gehi beste urte bat, kontratua luzatzen bada), hau da, kalkulatutako eskaintza ekonomiko bakoitzean adierazitako urteko prezioa bider hiru ezin izango da 190.909,05 euro (BEZ kanpo) baino handiagoa izan.

Eskaintza ekonomiko bakoitzaren urteko prezioa adierazten duten proposamen ekonomikoak honako puntuazio sistema honen arabera ebaluatuko dira:

Eskaintza ekonomikoen puntuazioak, eskaintza ekonomikoak kalkulatuta urteko prezioen puntuazioak, onartutako proposamenei dagozkienak, interpolazio linealaren bidez kalkulatuko dira, bi puntuek mugaturiko zuzenaren arabera: gehieneko puntuazioa edo P1 (Gehieneko beherapena, gehieneko puntuazioa: 60 puntu) eta gutxieneko puntuazioa edo P2 (Zero beherapena, gutxieneko puntuazioa).

Gehieneko beherapenari eta urteko lizitazio prezioari puntuak esleitzeko, honela jokatuko da:

P1 – Urteko eskaintza ekonomikoenari dagokiona (Gehieneko beherapena); gehieneko puntuazioa esleituko zaio (60 puntu).

P2 – Urteko lizitazio prezioari dagokiona, prezio hori 63.636,35 euro izanik (BEZ kanpo); dagokion gutxieneko puntuazioa esleituko zaio, honako formula honen arabera:

$$Pmin = 60 \times (1 - Bmax)$$

(Bmax = Gehieneko beherapena)

Pmin kalkulaturik lortutako emaitza negatiboa bada, zero dela joko da.

Beherapena (Bi) urteko lizitazio prezioaren eta i eskaintza ekonomiko bakoitzean adierazitako urteko prezioaren arteko diferentzia da, zati urteko lizitazio prezioa; i horrek 1etik n-ra bitarteko balioak hartzen ditu, non n lehiaketan onartutako lizitazioen kopurua den.

Aurrerago aipatutako zuzena lortzeko, lehiaketan onartutako eskaintzak bakarrik izango dira kontuan.

Printzipioz, onartutako proposamen guztietako beherapen portzentajeen batezbesteko aritmetikoa gutxienez 10 unitatetan gainditzen duten beherapen portzentajea jasotzen duten proposamen guztiak neurriz kanpokotzat edo ausartegitzat joko dira.

6.1.2 Paperak, afixak eta pankartak kentzeko zerbitzuan emango diren orduak: Kontzeptu hau dela eta, gehienez ere 5 puntu eman ahal izango dira.

Nahitaezko baldintza honako hau da: gutxienez 2 ordu egunero eskaintzea, astelehenetik ostiralera, zerbitzu horretarako.

Puntuak ondoko taularen arabera esleituko dirua:

- Egunean 2 ordu badira, 0,00 puntu esleituko da
- Egunean 3 ordu badira, 2,50 puntu esleituko dira
- Egunean 4 ordu badira, 5,00 puntu esleituko dira.

**6.2 BALIO JUDIZIO BATEN ONDORIOZ ESLEITZEN DIREN PUNTUAK EMATEKO IRIZPIDEAK:**

Kontzeptu horiek direla eta, 35 puntu emango dira, gehienez ere.

6.2.1) Giza baliabideak, lehiaketaren xedea den zerbitzua betetzeko esleitutako giza baliabideen eskuragarritasuna: gehienez ere 18 puntu.

6.2.1.1) Afixak eta pankartak kentzeko zerbitzuan jarduten duten giza baliabideen lanaldia: gehienez ere 7 puntu.

Lan egutegia eta ordutegia.

Lanaldietan larunbat, igande eta jaiegunak ere gehitzeko aukera, baita urgentzia kasuetan jarduteko aukera ere. Lan horiek adjudikaziodunak eskainitako orduko prezioaren arabera fakturatuko dira, eta prezio hori honela kalkulatzen da: afixak eta pankartak kentzeko zerbitzuagatik eskaintzan proposatutako prezioa zati eskaintzaren arabera urtean zehar kartelak eta pankartak bide publikotik kentzeko erabiliko diren orduen kopuru osoa; emaitza % 50 igoko da, eskatutako ezohiko zerbitzuak jaiegunetan edo igandeetan egiten badira, eta ez da igoko, ezohiko lanak laneguneta egiten badira.

6.2.1.2) Hormetako pintadak ezabatu behar izanez gero, eskulanaren denbora: gehienez ere 7 puntu.

Zerbitzua larunbat, igande eta jaiegunetan ere egiteko aukera, eta erantzuteko denbora, mankomunitatearen iritziz urgentziaz ezabatu behar diren pintaden kasuetan. Ezohiko zerbitzu horiengatik ordaindu beharreko prezio unitarioa adjudikaziodunak pintadak ezabatzeko zerbitzu desberdinak laneguneta egiteagatik eskainitakoa izango da, gehi % 50.

6.2.1.3) Giza baliabideak eta zerbitzua urte osoan zehar emango dela bermatzea: gehienez ere 4 puntu.

Zerbitzua ematera bideratutako giza baliabideak ebaluatuko dira, baita zaintaldeak egotea eta aldi baterako ezintasunaren ondoriozko bajak, absentismoa, istripuak, baimenak, oporraldiak eta antzeko kasuetan langileak ordezkatzeko ahalmena ere; alde horiek guztiak paper, kartel eta pankartak kentzeko zerbitzu finkoari, baita pintadak ezabatzeko zerbitzuari ere lotuta baloratuko dira modu independentean.

6.2.2) Baliabide teknikoengatik gehienez ere 17 puntu emango dira.

Honako hauek hartuko dira aintzat:

6.2.2.1) Adjudikaziodunak kontratuaren xedea den zerbitzua ematera bideratzen dituen makineria eta tresna desberdinen ezaugarri teknikoak, baita urgentzia kasuetan erabiltzeko aukera ere. Kontzeptu hori dela eta, gehienez ere 11 puntu emango dira.

6.2.2.2) Pankartak kentzeko, paperak paramentu bertikaletik kentzeko eta paramentu bertikaletan egindako pintadak ezabatzeko lanak betetzeko modua edo prozesua, modalitate guztiak, margotutako azalera guztiak eta mota guztietako hormak kontuan hartuta.
Kontzeptu hori dela eta, gehienez ere 4 puntu emango dira.

6.2.2.3) Halaber, egin beharreko lanen planifikazioa ebaluatuko da, baita honako hauek ere: ematen diren zerbitzuak ingurumena eta herritarrak zaintzen dituen moduan egiteko proposamena; ingurumena ahal den heinean errespetatzen duten produktuak erabiltzea; langileen inguruko politika, prestakuntzari eta lan osasun eta higieneari dagokienez.
Kontzeptu hori dela eta, gehienez ere 2 puntu emango dira.

**Zazpigarrena. INFORMAZIO OSAGARRIA**

Formulen hautaketa justifikatzea:

Eskaintza ekonomikorako:

Puntuak interpolazio linealaren bidez P1 eta P2 puntuen artean banatzen dituen formula, non P1 lizitazio prezioaren antzekoa den eta P1= 60x (1-Gehieneko beherapena) legokiokeen; P2, aldiz, eskaintza ekonomikoena da, hau da, beherapen handiena proposatzen duena, 60,00 puntu jasoko dituena. Tarteko eskaintzei puntu bien arteko interpolazio lineala aplikatuz esleitzen zaizkie puntuak, abzisa ardatzean eskaintza bakoitzaren beherapenen balioak eta ordenatuen ardatzean eskaintza bakoitzari esleitu behar zaizkion puntuak jarrita.

Hautatutako formulak eskaintza baxuenari kontzeptu horrengatik eslei daitezkeen puntu guztiak esleitzen dizkio, eta lizitazio prezioari honako hauek: gehieneko puntuazioa (1–gehieneko beherapena) faktoreaz biderkatuz lortutako puntuak, gehieneko beherapena bateko hainbestean adierazita.

Paperak, afixak eta pankartak kentzeko zerbitzua emateko egunero emango diren orduengatik puntuak esleitzeko:

Puntuak emateko, taula bat erabiltzea erabaki da: horren arabera, puntuak modu proportzionalean esleituko dira, eskatutako gutxieneko orduak aipatzen dituzten eskaintzak oinarri hartuta.

**Zortzigarrena. BERDINKETA EBAZTEKO IRIZPIDEAK**

Eskaintza biren edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, honela jokatuko da:

.- Enpresa bakoitzeko plantillan desgaitasuna duten edo gizarte bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena konparatuko da; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio neurrien bidez langile gehien duena.

Berdinketa ebatzi ezean, langileen artean aldi baterako kontratu gutxiago dituen enpresa lehenetsiko da.

Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresaren alde ebatziko da.

Hala ere, ebazten ez bada, zozketaren bidez ebatziko da, baldin eta aurreko irizpidea aplikatzeak berdinketa eragin ez badu.

**Bederatzigarrena. LIZITAZIO PREZIOAK KALKULATZEKO METODOA**

Lizitazio prezioa kalkulatzeko, aintzat hartu da jarraian azaltzen den kostuen banaketa, kostua osatzen duten sail desberdinen garrantzia honako hau izanik: Zuzeneko langileen gastua: % 40; zeharkako langileen kostua: % 13; horniduren kostua: % 5; finantza gastua: % 5; ibilgetuaren amortizazioa: % 25; gastu orokorrak: % 6; mozkin industriala % 6; hau da, gastu orokorrak kostu osoaren % 70 dira, zeharkako gastuak % 18 eta beste gastu batzuk % 12.

**Afixak kentzeko eta fatxadak garbitzeko zerbitzuari lotutako kostuen kalkulua**

| Kostuen banakapena, kontzeptuen arabera | Kontzeptuak kostuetan duen garrantizaren % | | | | Kontzeptuak kostuetan duen garantiza eurotan (BEZ barne) | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zuzeneko kostuak | Zeharkako kostuak | Egon daitezkeen beste gastu batzuk | | Zuzeneko kostuak | Zeharkako kostuak | Egon daitezkeen beste gastu batzuk | |
| | | | | | | | | |
| Langileen gastua – zuzeneko eskulana | 0,4 | | | | 61.599,98 | 0 | 0 | 0 |
| Langileen gastua – zeharkako eskulana | | 0,13 | | | 0 | 20.019,99 | 0 | 0 |
| Hornidurak | 0,05 | | | | 7.700,00 | 0 | 0 | 0 |
| Gastu Finantzarioa | | 0,05 | | | 0 | 7.700,00 | 0 | 0 |
| Ibilgetuaren amortizazioa | 0,25 | | | | 38.499,99 | 0 | 0 | 0 |
| Gastu orokorrak | | | 0,06 | | 0 | 0 | 9.240,00 | 0 |
| Mozkin industriala | | | | 0,06 | 0 | 0 | 0 | 9.240,00 |
| | | | | | | | | |
| GUZTIRA | 0,7 | 0,18 | 0,06 | 0,06 | 107.799,96 | 27.719,99 | 9.240,00 | 9.240,00 |
| | 1 | | | | 153.999,94 | | | |

**Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak**

Kontratuaren xedea bere eraginpean egon daitezkeen ingurumen balioak mantendu edo hobetzea da; horretarako, hondakinak sortzea saihesten saiatuko da eta, hala badagokio, hondakin horiek honako lehentasun ordenari jarraikiz kudeatzea bultzatuko da: prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklapena eta beste balorizazio mota batzuk, balorazio energetikoa barne. Prozedura horiek ezin badira aplikatu, arrazoi tekniko edo ekonomikoak direla medio, hondakinak ingurumenean ondorioak saihesteko edo ahalik eta ondorio txikienak izateko moduan kenduko dira.
Hori adjudikaziodunak ziurtatuko du, ISO 14.001 ziurtagiriaren bidez edo proposatutako adjudikaziodunari dokumentazio errekerimendua betetzeko fasean eskatuko zaion erantzukizunpeko adierazpenaren bidez. Kontratua gauzatzeko fasean, baldintza hori betetzen ote den egiaztatuko da.